

VITORIA-GASTEIZ HEZIKETARAKO ESPAZIO GISA



SANTA MARIA Katedrala

DBH



Vitoria-Gasteiz
Ciudad Educadora
Vitoria-Gasteiz
Hiri Hezitzailea



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

i b i l b i d e a

2008ko martxo

egilea:

Udaleko Hezkuntza Saila

diseinua:

Javi Roa

argazkiak:

Ismael García/Arkeologiaren Arkitekturari buruzko ikerketa taldea (UPV-EHU). Orr: 6, 7, 9, 10, 12, 14, 15, 17, 19 eta 22

Foto Quintas. Orr: 20 eta 26

L. Cámara eta P. Latorre. Orr: azala, 23 eta 24

Santa Maria Katedrala Fundazioaren Fondoak

maketak:

Víctor Sanz Yrazu

marrazkiak:

Ismael García/Arkeologiaren Arkitekturari buruzko ikerketa taldea (UPV-EHU)

Edward Allen ("Cómo funciona un edificio", 2002, Barcelona, Ed. Gustavo Gili). Or. 18

F.D.K. Ching ("Diccionario visual de arquitectura", 2004, Barcelona, Ed. Gustavo Gili). Or. 12

testuak eta ariketak:

Ismael García/Arkeologiaren Arkitekturari buruzko ikerketa taldea (UPV-EHU)

argitaldaria:

Vitoria-Gasteizko Udala - Udaleko Hezkuntza Saila

inprimatzailea:

Imprenta SACAL

euskaratzea:

AIXE, S.L.

lege gordailua:


VI-344/07

SANTA MARIA

Katedrala

Orrialdea:

1. Aurkezpena	5
2. Gasteiz herrixka, Santa Maria eliza eraiki aurretik	6
3. Lehenengo tenplua	9
3.1. Erromanikoa	12
4. Tenplu berria	14
4.1. Gotikoa	18
5. Eraberrikuntzak eta gaixotasuna	22
5.1. Lehenengo erremedioak	23
6. Santa Maria katedrala: eraikin gaixoa eta ahaztua, suspertzeko bidean	25
7. Bibliografia	28



istoria eta Arte Ibilbideak programan parte hartzean, zeure hiria hobeto ezagutzeko aukera izango duzu: sorrera, bilakaera, eta gizartearen, ekonomiaren, hirigintzaren nahiz artearen aldetik historiako aldi bakoitzean izan dituen ezaugarriak, egungo ezaugarriekin alderatuta.

Hiria hobeto ezagututa, gehiago estimatuko duzu, zaintzen ahaleginduko zara, eta hiriak eskaintzen dizkizun zerbitzuak era egokian erabili ahal izango dituzu.

1. AURKEZPENA

Adituak katedralean egiten ari diren ikerketei esker, gero eta gehiago dakigu Gasteiz duela ehunka urte nolakoa zen, nola eraiki zuten Santa Maria katedrala, eta zein ziren (eta dira) eraikinaren egiturazko arazoak. Milaka datu, eta horietatik laburpen bat egin dizute elizan barrena egin duzun bisitaldi gidatuak. Hala ere, hainbeste datu dira, oso zaila da guztia gogoan izatea. Horregatik, orain bidaia hasiko dugu irudimena-rekin, zure oroitzapenak pixka bat freskatzeko asmoz.

Beraz, utzi hutsik burua. Gaur ikusten dituzun gauza horietatik guztietatik, ezertxo ere ez zen existitzen aspaldiko garaietan: ez birgaitze lanik, ez arkeologia indusketarik, ez kaperarik... azken atean, ez katedralik ere. Muino txiki bat besterik ez, gorenean etxola gutxi batzuk zituela.

2. GASTEIZ HERRIXKA, SANTA MARIA ELIZA ERAIKI AURRETIK

Santa Maria tenplua antzinaantzinakoa den arren, inork hor eliza eraikitzea pentsatu baino askoz lehenagotik, hainbat mendetako herrixka zen Gasteiz. Hasieran **etxolez osatutako herrixka xumea zen, muinoaren gorenean eraikia**. Nekazari gutxi batzuk bizi ziren han, eta inguruko lurak landuz lortzen zuten, gehienbat, mantenua.



Gasteiz herrixkaren itxura, hormak eraiki aurretik

Oraingo Santa Maria Katedralean egin diren arkeologia indusketetan, **zutoin zulo** ugari- riren hondarrak aurkitu dituzte ikertzaileek. Gasteizko lehenengo biztanleek egin zituz- ten zulo horiek, etxolen oinarritzko egitura eratuko zuten zurezko zutoinak lurrian iltzatzeko. Hainbat analisi eginda, zientzia- lariak zehaztu ahal izan dute etxerik zaha- rrenak VIII. mendekoak zirela (duela 1200 urte!).



Santa Maria katedraleko indusketetan arkeologoek aurkitutako zutoin zuloak

Egindako arkeologia aurkikuntzei esker jakin izan dugu ezen, hasieran etxebizitzak egiteko zura besterik erabiltzen ez bazuten ere, geroago (IX-X. mendeen inguruan) **herrixkako biztanleak harria ere erabiltzen hasi** zirela. Horrek ez du esan nahi ordutik aurrera etxolak goitik behera harriz egiten zituztela (hori eraikin



garrantzitsuenetan baizik ez zuten egiten, hala nola elizan eta harresian), baizik eta harria baliatzen zutela bizitexetako zati jakin batzuk egiteko. Zehazki esanda, harria erabiltzen zuten hormatxo isolatzailea erai- kitzeko; hormatxo horrekin, lurreko heze- tasunetik babesten zuten etxeko zurezko egitura.

XI. mendearen erdialdean, herrixka nabarmen handitua zen. Arabako Lautadako gune garrantzitsuetakoa izateraino hazi zen. Hain zen garrantzitsua, erabaki zuten **Gasteizko kokalekua harresiarekin babestea**; eta halaxe egin zuten. Arkeologoek harresi haren aztarnak aurkitu dituzte Santa Maria Katedralaren barruan. Hala ere, harresi haren hainbat eta hainbat zati ikusteko, nahikoa dugu gure Alde Zaharreko kaleetan barrena paseatzea.



3. LEHENENGO TENPLUA

Gaur egun bisita dezakezun katedrala, eraikin handia da. Ez da, ordea, Santa Mariari eskainitako lehenengo tenplua. Indusketetan, arkeologoek ustekabe handia hartu dute: oraingoa baino **tenplu zaharrago eta txikiago baten hondarrak** aurkitu dituzte. Orain arte inork ez zekien horren berri, ez baitzen inongo idazkitan jasota geratu. Zientzialariek diote gure Katedralaren arbaso hori XII. mendearen hasieran eraiki zutela.

Santa Maria tenplu zahar hura, Gasteiz herrixka babesten zuen harresiari estu-estu atxikita eraiki zuten, herrixkaren iparraldeko atearen ondoko tarte batean. Toki hori aukeratzea ez zen kasualitatea izan. Izan ere, tenplua, **erlijiorako toki gisa ez ezik, gotorleku gisa ere erabiliko zuten**. Tenpluaren zeregina zen hormaren babes indartzea, eta, batez ere, herrixkako sarbidea babestea. Tenplua eraikitzen hasi baino lehen, lur saila libre utzi behar izan zuten, ordu arte han izan ziren harrizko eta zurezko etxola zaharretako batzuk eraitsita.



Antzinako elizako obretan, bi harri mota erabili zituzten. Bata, Gasteiz mendietatik zetorren: lauza grisaxka zakarrak ziren («Olarizuko kalkarenita» deitzen diote zientzialariek). Bestea, Trebiñuko konderrian dauden Axarteko harrobietatik zetorren: zurixka zen, eta, aurrekoak ez bezala, harlandu onak egiteko aukera ematen zuen, baita figurak zizelkatzeko ere («Axarteko lumakela» esaten diote adituek).

Harriaren jatorriak eragin handia izan zuen eraikinaren kostuan. Izan ere, **garestiena ez zen harria lurretik ateratzea, garraiatzea baizik.** Harri grisaren harrobiak (kalkarenita) hurbil samarrean zeuden; beraz, aski merkea zen harri mota hori. Aitzitik, harri zuriaren harrobietaraino (lumakela), egin beharreko bidea bi halako zen; horrenbestez, handik ekartzea benetako luxua zen, eta halako gastua ezin zuten egin garrantzi handiko eraikinak altxatzeko baizik, adibidez Santa Maria eliza hura.



*Harri zuriz eginiko blokea
(Axarteko lumakela)*



*Harri grisaxkaz eginiko blokea
(Olarizuko kalkarenita)*

Jarraian, honekin batera doan irudian azalduz joango diren jardueren zerrenda duzu (irudi hori XVI. mendeko alemaniar miniatura da, eta hor irudikatuta dago monasterio bat eraikitzeko prozesua, Santa Mariako antzinako eliza eraikitzeko erabili zutenaren antz-antzekoa). Jarduera horiek desordenatuta daude. Zure lana izango da ordenatzea, esaldi bakoitzaren ondoan dagokion marrazkiaren zenbakia jarrita:


- (.....) Harresia osatzea
- (.....) Harria lantzea
- (.....) Kareorea jasotzea
- (.....) Harria garraiatzea
- (.....) Harrobian harria ateratzea
- (.....) Kareorea irabiatzea



3.1. ERROMANIKOA

Gastuak egiteko eragozpen handirik jarri ez zuten arren, erabil zitzaketen baliabideak gutxi ziren, eta jakintzak ere aski mugatuak. Hortaz, eraikinak modu jakin batean egin behar izan zituzten. Hala, bada, orduko gasteiztarrek eliza txikia egitearekin konformatu behar izan zuten. Baina, hori bai, garaiko modari jarraituz egin zuten: estilo **erromanikoa** erabiliz, alegia.

Estilo erromanikoaren ezaugarri nagusietarikoa da **erdi puntuko arku**a, hots, **zirkuluerdi formako arku**a. Tenpluko ate eta leiho guztiak arku mota horrekin burutu zituzten, arkeologoek egiaztatu ahal izan dutenez.




Hasiera-hasierako Santa Maria tenplua berregiten duen maketa

Estilo horren beste bereizgarri bat da (aurreko ezaugarri horren ondorioz) **kanoi ganga** erabiltzea, hau da, **erdi puntuko arkuak lerroan jarriz egiten zuten sabaia**. Antzinako tenplutik geratu diren hondarrak gutxi direnez, arkeologoek ezin dute erabateko ziurtasunez esan Santa Mariako sabaia **kanoi ganga** zela. Beharbada, zurezko egitura xumea izango zen.

LOT ITZAZU, planoaren gainean, markatutako puntuak:

- Hau da Santa Maria Katedralaren planoaren orain den bezalaxe. Ikusiko duzunez, zenbaki beltzarekin markatutako puntuak daude. Egizu lerro bat puntu horiek guztiak batzeko, 1 zenbakitik hasita, azkeneraino. Bukatutakoan, ikusiko duzu nondik nora zihuan harresia, katedrala eraiki baino lehen.
- Plano horretan bertan, badira zenbaki gorriekin markatutako beste puntu batzuk; egizu beste lerro bat, horiek batzeko. Bukatutakoan, ikusiko duzu hasierako Santa Maria elizaren oinplanoa zein zen.



Era berean, *erdi puntuko arkuaren* forma zuen absideak. Absidea, tenpluaren «burua» zen, elizako aldarea zegoen tokia. Baina, han, **erdi puntuko arku ez zegoen bertikalean, baizik eta horizontalean, zoru gainean etzanda**. Arkeologoek aurkitu dutenez, Santa Maria zaharrak bazituen bi abside erdizirkular ere. Puntuak batuz lehen egin duzun marrazkian agertu zaizkizu abside horiek.

Ikertzaileek, orobat, zenbait harlandu aurkitu dituzte. Harlandu horiek adierazten dutenez, eraikinak, apaingarri gisa, **xake taularen formak imitatzen zituzten erlaitzak** zituen. Apaingarri horri «jacatar takeatua» deritzo, eta oso tipikoa zen «moda» erromanikoan. Harri horietako batzuen gainean, **pintura arrastoak** ere aurkitu dituzte. Horrek esan nahi du eraikineko hormetako asko pintatuta zeudela.



*Xake taularen formarekin zizelkatutako blokea.
Pieza horiek erlaitzak apaintzeko erabili ohi zituzten*

4. TENPLU BERRIA

Eraiki eta gero, antzinako eliza erromaniko hura alhan izan zen gutxi gorabehera mende batez, XIII. mendeko lehenengo hamarkada arte. 1181ean, Gasteizi forua eman zion Nafarroako errege Antso VI.a *Jakitunak*. Foru hartan, erregeak izen berria jarri zion hiribilduari: Nova Victoria. Antsok erabaki zuen hiriaren babesak hobetzea. Horretarako, gaztelu bat eraiki zuen, antzinako San Bizente elizaren gainean, eta Santa Maria parrokia gotortu zuen. 1200ean, Victoriako hiribildu harresituari setio luzea ezarri zion Gaztelako errege Alfontso VIII.ak. Setio hartan, antzinako Santa Maria elizaren **zati handi bat suntsitu zen**. Eta hori gutxi balitz ere, 1202an hiriak sute handia nozitu zuen. Ordurako hondatuta zegoen tenpluko egiturari are kalte larriagoa ekarri zion horrek.

Eraikin zaharra erabiltzeko moduan ez zela ikusirik, hiribilduko agintariek erabaki zuten **tenplu erabat berria eraikitzeari ekitea**. Aurrekoa baino handiagoa izango zen. Eliza berri hura da, funtsean, gaur egun dakusagun Santa Maria Katedrala.




BEGIRATU ETA ERANTZUN:

Maketa baten argazki honetan, tenplu berria eraikitzeko lanen eszena bat ageri da. Ondo behatzen badiozu, ohartuko zara tenplua eraikitzeko bi harri mota erabili zituztela: bata, zuriagoa (lumakela); eta bestea, grisaxka (kalkarenita):

Non erabili zuten bata eta non bestea?

Zer alde ikusten dituzu harri zuriek hartzen dituzten formen eta bloke grisek dituzten formen artean?

Katedralaren hormak aztertu dituzten arkeologoek aurkitu dutenez, **bi fasetan eraiki zen katedrala**. Lehenengo fasean, harresiaren esparrutik kanpora geratuko zen eraikin zatia besterik ez zuten eraiki. Ondoren, obrak etenda izan ziren hainbat hamarkadatan. Eta, 1256an, bigarren faseari ekin zioten: eraikina bukatzea, harresien barrualdean geratzen zen zatian. Prozesua geldoa izan zenez, Gasteizko biztanleek behin-behinekoz berreraiki behar izan zuten antzinako eliza, han gurtza egiteko, tenplu berria eraikitzeko lanak bukatu bitartean.



Hain eraikin handia egitea oso garestia zenez, hasieran arkitektoek nahiago izan **zuten** aurreztu, eta zurez egin zituzten tenplu berriaren sabai guztiak. Irtenbide horrekin, gainerako obrak ere bizkortzen ziren. Izan ere, harrizko gangak egin baino lehen, egiturazko hainbat kalkulu egin behar da; eta, sabaiak zurez eginda, kalkulu horien zati bat ez zuten egin beharrik. Arazoa geroago etorriko zen, XV. mendean, zurezko teilatuaren ordez harrizkoa jartzea erabaki zutenean.


Eraikitzen bukatu zutenean, Santa Maria tenplu berria erlijiozko zereginetarako erabili zuten batik bat. Hara joaten ziren Victoriako biztanleak otoitz egitera, ezteiak ospatzera, semealabak bataiatzera eta familiartekoak lurperatzera (beharbada harrigarria irudituko zaizu, baina eraikinaren barrualdea hilerri gisa erabiltzen zuten; horregatik aurkitu dute arkeologoek hainbeste eskeleto, zoruaren azpian).



Elizkizunetan, Victoriako biztanleetako asko biltzen ziren Santa Maria elizan. Parrokoak latinez ematen zuen meza, betiere eliztarrei bizkar emanez. Agintariak beti lehenengo ilaretan jartzen ziren; batzuetan, zurezko banku propioak zituzten, esertzeko. Gainerakoak -gehienak- atzean ipintzen ziren, eta denbora guztian zutik izaten ziren.

4.1. GOTIKOA

Oro har, tenplu berria eraikitzen hasi zirenean, Europako ekonomia ondo zihoan. Horrek erraztu egin zuen arkitekturaren inbertsio handiagoak egitea. Horri esker, hobetu egin zituzten elizak eraikitzeko erabilitako teknikak, eta **moda aldatu zen: gotikoak erromanikoa ordeztu zuen**. Eta Santa Maria berriaren eraikitzaileek, hain zuzen ere, estilo horixe erabili zuten, gotikoa. Erromanikoan ez bezala, estilo gotikoan ezaugarri nagusietarikoa da **ogiba arku**, hots, **goialdean punta duen arku**. Katedralaren hormetan orain ikus dezakezunez, tenpluko ate eta leihoetako askoren burualdean arku mota hori jarri zuten.



1. Erdi puntuko arku
2. Ogiba arku



Teknikaren aldetik, ogiba arkuak erdi puntuko arku erromanikoak baino hobeto egiten du bere lana. Izan ere, hobeto eusten dio eraikinaren pisuari, eta askoz eliza handiagoak egiteko aukera ematen du. Estilo gotikoaren beste bereizgarri bat da **gurutze ganga** erabiltzea, hau da, **bi ogiba arku gurutzatuz egiten zuten sabaia**.



Santa Maria katedralak aspaldi galdu zituen jatorrizko beirateak. Horregatik, orain-berriki beirate berriak egin zizkioten, hala nola argazkian ageri diren horiek

Ogiba arkuak bazuen beste abantaila bat: leiho handiagoak ireki zitezkeen eraikinen hormetan. Horrela, barrualdea argitsuagoa zen. Edozein etxe modernotan bezala leihoetan kristalak jarri beharrean, **Erdi Aroko artisauek beirateak ipintzen zituzten elizetan**. Beirateak puzzleen modukoak dira, beira zati txiki koloreztatuak berunarekin itsatsiz eginiko puzzleak. Hartara, barrura sartzen zen argia ere hainbat koloretakoa izatea lortzen zuten.

Aipatu dugun guztiaz gainera, Katedralean, orobat, gotikoak berezko dituen beste xehetasun asko ikus ditzakezu. Konparazio batera: kapitela zizelkatuak dituzten zutabeak; gangako giltzarriak; triforioa edota eliz atariko eskulturak.

Santa Mariako eliz ataria da tenpluko sarrera garrantzitsuen, bakarra ez den arren. Guztira hiru portada ditu: bi txikiak, alboetan; eta nagusia, erdian. Ikus dezakezunez, portada guztiek **gotikoaren berezko ogiba arkuak dituzte burualdean**, eta **erdialdeko behe erliebea, tinpano izenekoa**, zuzenean ate bakoitzaren gainean. Sarreraren alboetan ere eskultura ugari dago. Tinpanoetan, erlijio hainbat kontakizun ageri da, zizelkatuta. Hiru portadetako bakoitzari izena ematen diete: ezkerrekoa San Gilen portada da, santu horren bizitza erakusten duenez; eskuinekoa, Azken Judizioko portada; eta erdikoa katedrala bera bezala, Santa Mariaren bizitzari eskainia.



BEGIRATU ETA IDATZI:

Koaderno honetan diren irudi eta argazkien laguntzaz, idatz itzazu estilo gotikoaren ezaugarrietako batzuk.

ERREPASA ezazu, laburki, erromanikoari eta gotikoari azaldu duguna, eta saia zaitetz termino hauek dagokien tokian ezartzen:

- Leihateak.
- Kanoi ganga.
- Arku zorrotza edo ogiba arkua.
- Erdi puntuko arkua edo zirkuluerdi formakoa.
- Gurutze ganga.
- Oin erdizirkularreko absidea.
- Triforioa.
- Xake taularen erakoa.

ESTILOA	ARKU MOTA	GANGA MOTA	BESTE APAINGARRI BATZUK
Erromanikoa			
Gotikoa			

5. ERABERRIKUNTZAK ETA GAIXOTASUNA

Jadanik esan dugunez, hasieran, elizako sabaia zurez egin zituzten, eta geroago harrizko gangak jarri zituzten zurezko sabaia ordez. Bada, harrizko gangak jartzeko lanak XV. mendearen bukaeran egin zituzten, gure parrokia, nolabait esateko, mailaz igo zenean: **ordu arte Armentiaiko San Andres tenplua izan zuen kolegiata titulua, Santa Mariari eman zioten.** Gasteizko agintariek bazekiten eman berri zioten mailaren pareko tenplua behar zutela, eta zurezko sabaia eliza pobreenen ezaugarri izaten zen, jeneralean.

Zuraren ordez harrizko gangak jartzea izan zen **Santa Maria elizaren egiturazko arazo**en hasiera. XV. mendeko eraikitzaileek ez zekiten ondo-ondo ea nola egin zituzten eraikinaren hormak euren arbasoek, bi mende lehenago. Beraz, ez zitzairen batere erraza izan kalkuluak egitea, harrizko sabaia berria jartzeko. Hartara, azkenean, hormek eutsi zezaketen baina askoz astunago egin zituzten gangak. Akats hori ez zen nabarmendu mende bat igaro arte. Mende hori igarotakoan, izan ere, sabaiko arku batzuk pitzatzen hasi ziren.



Oraingo gangak harrizkoak diren arren, Katedraleko sabaia zurezkoa zen hasieran

Gainera, XVI. mendean, oraindik ere akats horretaz inor konturatu ez zenean, Gasteizko noble batzuek erabaki zuten nork bere familiarentzako kapera eskusiboak eraikitzea. Kapera horiek eraikin txikiak ziren, Santa Maria Katedralaren hormei kanpoaldetik atxikiak. Arazoa zen kapera bakoitzaren sarrera tenpluaren barrualdetik egiten zela. Hau da, kapera egiten zuen arkitektoak zulo handiak egin behar zituen, elizako hormetan, kaperako atea jartzeko. Hormetako zulo horiek **are gehiago ahuldu zituzten katedralaren hormak.**

Irudiaren erdialdean nabarmentzen den eraikina Kristo Santuaren kapera da. Ikus dezakezunez, Katedralaren gorputzari erantsita dago, kanpoaldetik



5.1. LEHENENGO ERREMEDIOKAK

XVII. mendean, Santa Maria elizaren egiturako arazoak bista-bistakoak ziren jadanik: **eraikina «gaixorik» zegoen.** Gangetan gero eta pitzadura gehiago ageri zen, horma batzuei «sabela» ateratzen zitzairen, eta zutabe batzuk okertu egiten ziren. Guztia oso pixkanaka gertatzen zen arren, eliztar batzuk beldur ziren, eraikina goitik behera etorriko ote zen.

Lehenengo erremedioetariko bat izan zen **tenpluaren kanpoaldean kontrahorma gehiago** jartzea. Indargarri horiek hormen eusteko ahalmena handitzen zuten; eta, halaxe, gangen pisu handiari eusten laguntzen zuten. Hor jarri zituzten kontrahormen izen teknikoak *arbotante* da. Arbotante asko ikusi ahal izango duzu eraikinari kanpoaldetik buelta ematen badiozu.



Irudiaren behealdean, tenpluaren egiturari barrualdetik eusten zioten trabes eskorazko arkuetatik lau ikus ditzakezu



Irudi honetan ageri dira arbotanteak eratzten dituzten hiru kontrahorma eta arkuak. Horiek eusten diote Katedralaren gorputz nagusiarri, kanpoaldetik

Hala ere, luzarora, kontrahormen indargarriak beste arazo bat erantsi zien aurreko arazo guztiei. Hasieran ez ziren konturatu, baina denbora igaro ahala nabaritu zen, berriz ere, kalkuluetan hutsegiteren bat izan zela. Kanpoaldeko kontrahormek gehiegi estutzen zituzten hormak: beraz, hormak elizaren barrualderantz okertzen hasi ziren. Uneko irtenbidea izan zen tenpluaren barruan beste arku batzuk ipintzea, zutabeen artean. Arku horiei, **trabes eskorazko arkuak edo beldurraren arkuak** esaten zaie, eta kanpoko kontrahormen bul-tzadari aurka egiteko balio izan zuten.

BERRIKUS ezazu katedralaren egiturako arazoei buruz esan duguna, eta antzina jarri zituzten konponbideei esan duguna. Saia zaitetz hori guztia hurrengo lauki honen barruan laburbiltzen:

ARAZOAK	KONPONBIDEAK

6. SANTA MARIA KATEDRALA: ERAIKIN GAIXOA ETA AHAZTUA, SUSPERTZEKO BIDEAN.

Katedralak egiturako arazoak jasaten jarraitu zuen, XX. mende arte. Arazo horiek areago larritu ere egin ziren, tenpluaren egoera zela eta: **Santa Maria katedrala ahaztua zuten gasteiztarrek**. Hiria haztearekin, eta batez ere azken mendebetea, katedralak behin betiko galdu zuen ordu arte izandako protagonismoa. Hiriko jarduera gehiena Zabalgunean bildu zen. Han eraiki zuten Katedral Berria, Florida parkearen ondoan; bien bitartean, Alde Zaharra gero eta areago hondatzen ari zen.

Hala ere, orainberriki, gasteiztarrek berriz eskaini diote arreta Katedral Zaharrari. Horregatik, zientzialari asko ari dira lanean, eta euren artean jakintzak trukatzeko, eraikinari osasuna itzultzeko asmoz. Lehenik eta behin, zehatzmehatz ikertu dute, zer gaixotasun nozitzen duen zehatz jakiteko asmoz. Bildutako informazio guztiarekin, jarduketa plan bat ezarri dute: **Santa Maria Katedrala Zaharberritzeko Plan Zuzentzailea**.

Ezari den planari jarraituz, katedralean jende asko ari da lanean: topografoak, arkitektoak, arkeologoak, zaharberritzaileak, informatikariak, igeltseroak, administrariak, eta erakusleen taldea. Erakusleak arduratzen dira eraikina erakusteaz, zu bezala katedrala ezagutzearren bisitan etortzen diren guztiei.



IRAKURRI, ETA ELKAR itzazu dagokien eran:

Hurrengo orrialdean bi zutabe aurkituko dituzu: ezkerrekoan, Katedralean lan egiten duten zientzialari batzuen izenak; eskuinaldean, zientzialari horiek egiten duten lanaren deskribapenak. Alabaina, desordenatuta daude guztiak. Geziak marraztuz, elkar ezazu izen bakoitza dagokion deskribapenarekin.

Artearen historialaria

Topografoa

Ingeniaria

Zaharberritzailea

Biologoa

Informatikaria

Arkitektoa

Historialaria

Geologoa

Arkeologoa

Eraikinaren bilakaera materiala eta historikoa aztertzen du, bai eta lurpean diren giza jardueraren aztarnak ere.

Eraikinaren egitura eta materialak aztertzen ditu, gero eraikinaren zaharberritzea egiteko.

Eraikinaren bilakaera artistikoa eta eraikinaren barruan diren bestelako arte-lanen (adibidez, pinturak edo eskulturak) bilakaera artistikoa aztertzen du.

Katedrala aztertu eta zaharberritzeko lanetan laguntzen duten ordenagailuak maneiatzen dituen aditua.

Katedralari buruz idatzitako antzinako dokumentuak, artxiboetan daudenak, aztertzen ditu.

Eraikina osatzen duten harri moten izaera eta harri mota horiek jasaten dituzten asaldurak aztertzen ditu.

Eraikin baten erosioan eragiten duten landareak eta gainerako eragile biziak aztertzen ditu.

Planoen eta aurretiko bisten bidez eraikin edo lur sail baten deskribapen fisikoa egiteko, geografia datuak lortzen aditua den teknikaria.

Eraikinerako erabileraren bat edo beste duten egiturak egiten eta eraikitzen aditua den teknikaria.

Katedralak dauzkan eskulturako edo pinturako artelanak zaharberritzen aditua den teknikaria.

Denboran zehar egin dugun bidaldia bukatu da, heldu gara gaurko eguneraino. Gure ibilbidean, Santa Maria katedralaren historiako -eta, ondorioz, Gasteizen historiako- funtsezko gai batzuk ezagutu ahal izan dituzu. Hala ere, oraindik asko dugu aurkitu eta ezagutzeko. Beraz, espero dugu berriz ere hemen ikusiko zaitugula, xehetasun berriak izango baititugu zuri kontatzeko. Eta, badakizu: orain ere, Katedrala... "Obretan eta irekita".

7. BIBLIOGRAFIA

Azkarate, A.; Cámara, L.; Lasagabaster, J.I.; Latorre, P. *Catedral de Santa María. Plan Director de Restauración*. Vitoria-Gasteiz: Santa Maria Katedrala Fundazioa, 2001.

Azkarate, A.; Solaun, J.L., Después del Imperio Romano y antes del año mil: morfología urbana, técnicas constructivas y producciones cerámicas, *Arqueología de la Arquitectura*, 2, orr. 37-46. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2003.

Blanco, F.J. La arquitectura románica. La construcción románica. Técnicas y principios, en *Iniciación al Arte Románico*, orr. 27-51. Aguilar de Campoo: Fundación Santa María la Real, 2005.

Heyman, J. La estructura gótica, en *Teoría, historia y restauración de estructuras de fábrica*, orr. 219-237. Madrid: Instituto Juan de Herrera, 1999.

Lasagabaster, J.I (zuz.). *I Congreso de Restauración de Catedrales Góticas*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundiak, 2001.



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala



Vitoria-Gasteiz
Ciudad Educadora
Vitoria-Gasteiz
Hiri Hezitzailea



Arkeologiaren Arkitekturari
buruzko ikerketa taldea

Universidad del País Vasco /Euskal Herriko Unibertsitatea